

## Talentua erakartzea

<b>Xedea</b> (1. oinarria)	<ul style="list-style-type: none"> <li>- EAEtik kanpo bizi eta lanean diharduten kualifikazio eta esperientzia handiko profesionalak Bizkaia talentua erakartzen, aberriratzen, lotzen eta atxikitzen laguntzea.</li> <li>- Kualifikazio eta esperientzia handiko profesionalen kontratazioa sustatzea eta laguntzea, beren talentuaren garapena sustatuz, Bizkaiko enprekin lankidetzan, merkatuan duten lehiakortasuna hobetzeko.</li> </ul>
<b>Erakunde onuradunak</b> (3. oinarria)	<ul style="list-style-type: none"> <li>- Jarduera nagusia industria, eraikuntza, garraio eta handizkako merkataritzaren sektoreetan garatzen duten enpresak.</li> <li>- Eskara aurkezteko egunean, honako <b>baldintza</b> hauek bete beharko dituzte:         <ul style="list-style-type: none"> <li>✓ Egoitza soziala, fiskala eta ekoizpen-zentro bat Bizkaian izatea.</li> <li>✓ Nortasun juridiko propioa izatea.</li> <li>✓ Gutxienez 5 lanpostu izatea lanaldi osoan eta baliokidean. Honako hauek plantillakoak izango dira:             <ul style="list-style-type: none"> <li>• Gizarte Segurantzako Erregimen Orokorrean sartuta dauden eta lan-kontratu baten bidez enpresari lotuta dauden pertsonak.</li> <li>• Lan elkartuko kooperatibetako bazkide langileak, Gizarte Segurantzako Erregimen Orokorrean sartuta ez badaude ere.</li> <li>• Enpresaren jarduerari atxikitako pertsonak, baldin eta, beren izaeragatik, Gizarte Segurantzako Erregimen Orokorrean alta emanda egon ezin badira.</li> </ul> </li> <li>✓ Zerga-betebeharrak eta dirulaguntzak itzultzeko betebeharrak egunean izatea.</li> <li>✓ Sexua dela-eta diskriminatzeagatik zigor administratibo edo penalik ez izatea.</li> <li>✓ Maiatzaren 31ko 5/2005 Foru Arauaren 12. artikuluan ezarritako egoeretako batean ere sartuta ez egotea.</li> </ul> </li> </ul>
<b>Dirulaguntza jaso dezakeen egitate</b> (4. oinarria)	Lan-kontratu mugagabeak formalizatzea esperientzia profesional handiko kualifikazio handiko profesionalekin, EAEtik kanpo lan egiten ari direnekin, beren jarduera profesionala Bizkaiko Lurralde Historikoan egin dezaten.
<b>Dirulaguntzen zenbatekoa</b> (7. oinarria)	2021eko urteko soldata finko gordinaren % 20raino eta kontratatutako pertsonaren 2022ko urteko soldata finko gordinaren % 20raino, gehienez ere 30.000 euroko zenbatekoa kontratu bakoitzeko.
<b>Kontraturiko pertsonen baldintzak</b> (8. oinarria)	<ul style="list-style-type: none"> <li>- <b>Eskara aurkezten den egunean:</b> <ul style="list-style-type: none"> <li>✓ Unibertsitateko gradu titulua edo lizentziatura izatea.</li> <li>✓ Kontratatutako den jarduera egingo den arloan gutxienez 5 urteko lan-esperientzia izatea.</li> <li>✓ Eskara aurkeztu aurreko azken 42 hilabeteetan gutxienez 36 hilabetez EAEtik kanpo jarduera profesionala egin izana.</li> <li>✓ Lanaldi osoko edo partzialeko lan-kontratu mugagabe bat izatea, 2021eko urtarrilaren 1aren ondoren formalizatua, edo kontratazio-proposamen irmo bat, erakunde eskatzaileak eta kontratatu beharreko pertsonak sinatua.</li> <li>✓ Lan-kontratu bat edo kontratazio-proposamen irmo bat formalizatuta izatea, gutxienez 45.000 euroko urteko ordainsari gordinarekin.</li> </ul> </li> <li>- <b>2021-11-19ko epemugan eta 2022-12-31ra arte mantentzea:</b> <ul style="list-style-type: none"> <li>✓ Lanaldi osoko edo partzialeko lan-kontratu mugagabea behar bezala formalizatuta izatea.</li> <li>✓ Gizarte Segurantzaren alta emanda egotea.</li> <li>✓ Bizkaian erroldatuta egotea.</li> <li>✓ Bizkaiko Foru Aldundiko Ogasun Saileko pertsona fisikoen erroldan alta emanda egotea.</li> <li>✓ Bizkaiko ekoizpen-zentroari atxikita egotea.</li> </ul> </li> </ul>
<b>Egikaritze-epaek</b> (9. oinarria)	Profesionalak <b>2021-01-01etik 2021-11-19ra bitartean</b> egon beharko du kontratatuta, eta kontratu hori gutxienez <b>2022-12-31ra arte</b> mantendu beharko da indarrean.
<b>Emateko araubidea eta prozedura</b> (5. oinarria)	68/2021 Foru Dekretua, maiatzaren 11koa. (BAO 89, 2021eko maiatzaren 13koa). Laguntzak emateko prozedura lehia askekoa izango da.
<b>Eskaerak aurkezteko epea</b> (14. oinarria)	2021eko ekainaren 1eko 8:30etik 2021eko urriaren 15eko 13:30era. <b>Ekonomia Sustatzeko Sailaren Bulego Birtualaren bidez</b> ( <a href="http://www.bizkaia.eu/sustapena-oficinavirtual">www.bizkaia.eu/sustapena-oficinavirtual</a> ). Horretarako, sinadura elektronikoa izan beharko du (Izenpe, NAN elektronikoa, FEA...), eta Bizkaibai zerbitzuan alta emanda egon beharko du, edo, bestela, Orueta Apezpikuaren 6. zenbakiko gure bulegoetan eska daitekeen B@kQ ziurtagiri elektronikoaren bidez sartu.